

UDAN ERE

ELKAR ZAINDU

DEZAGUN



AISIALDI ESKAINTZA ANITZA

Jarraian eskaintzen ditugun irizpideak udaldian auzogune zein herri ezberdinetan ekintza eskaintza anitza osatzeko gomendioak dira.

Proposamen hauek herri zein auzogune bakoitzera egokitzeko beharraz jakitun gara. Aisialdi zein elkartegintzan adituak eta arituak diren herritar eta profesionalekin batera eratuak izan beharko dira, baita tokian toki osatutako zaintza sare zein osasungintzako profesionalekin koordinatuz ere.

Honez gain, organu gorenagoetatik zehazten diren osasun irizpideak ezinbestean bete beharko dira, aurtengo udaldia ezberdina izango dela eta honek egokitzera behartzen gaituela jakinda.

Hau guztia esanda, udaldian ekintza anitzak eskaintzea inoiz baino beharrezkoagoa dela defendatzen dugu, haur eta nerabeek herriarekin harremana berreskuratzeko; herrian, auzoan jolastearen inguruan lanketa egiteko, eta herri gisa, egoerak sorturiko arrakala sozialari erantzuteko.

HERRI HEZITZAILEA

Oinherrin kokatzen garen aisialdiko eragileok hezkuntza komunitatea dugu ardatz, eta beraz, proposaturiko gomendioak, hezkuntza formala zein ez formala elkarlanean jardutetik abiatzen dira.

1-ETAPA: komunitatearen sentsibilizazioa (beldurretik elkar zaintzara)

Lehen etapa hau dagoeneko martxan dagoen 1. fasetik abiatzen da. Lehen pausua haur eta nerabeei begirako mezu positiboak helaraztean datza, familia zein herriari, eta haur eta nerabeei zuzenean zuzenduak.

Honek, alarma egoerak sorturiko beldur eta alarma mezuak mezu positibo bi-lakatzeko helburua izango du, haur eta nerabeak kalean seguru sentitzeaz gain kontuan hartuak, zainduak eta maitatuak izateko.

2-ETAPA: trantsizioa, eskola garaitik udako ekintzetara

Bigarren etapa honek konfinamenduan emandako egoeren inguruan hausnartzea izango luke helburu. Ebaluazio hau hilabete hauetan haur eta nerabeekin zuzenean jardun duten hezkuntza formaleko profesionalen zein aisialdiko hezitzaileen ardura izango da, udaldiari begira ere jarriz eta berau nolakoa izango den helaraziz.

Kontuan hartuko diren irizpideak:

- Emozioak lantzeari begirako ekintzak, konfinamenduak eragindako zauriak sendatu eta isteari begirakoak.
- Udaldian zehar errefortzu akademikoari begirako lanketarako proposamenak zein zereginak (irakurketak, udarako lanak...).
- Datorren ikasturteari begirako azalpenak.
- Hezkuntza formaleko profesionalei agurra eta hezkuntza ez formaleko hezitzaileei ongi etorria eta ezagutza.
- Udaldiari buruzko informazioa helaraztea.

3-ETAPA: udaldia

Aisialdi eskaintza anitzaren helburu nagusia haur eta nerabeek kalea berrartzea izango da, kalean egoteko dauden betebeharrak eta arau berriak kontuan hartuz eta hauetara ohituz. Kaleak hartzea balio hezitzaileetan oinarrituriko hainbat ekintzarekin burutuko da:

- Itxialdian izandako bizipenen hausnarketa eta lanketa (kasuan kasu, itxialdiko bizipen konkretuei zein haur eta nerabeen behar zehatzei begira egon beharko da, euren beharrei erantzunez: familia zaurgarrienak, aniztasun funtzionala duten haur eta nerabeen kasuan, e.a).
- Haur eta nerabeek berdinen arteko harremana berreskuratzea.
- Hezkuntzaren dimentsio guztiak berrartuko dituen eskaintza izatea, mugimendua, jolasa, natura, parte hartzea, euskara eta harremanak oinarri izanik.

UDALDIRAKO ANTOLAKETA

A) Udaldiko ekintza eskaintza antolatzeke eragileak, udala, familiak eta aisialdiko eragileen arteko koordinazio gunea sortu beharko da, bertan bakoitzaren ardura zein konpromisoen inguruko lanketa eginez. Protokoloak zehaztu eta osasungintzako aditu eta zentroekin ere harremana landu beharko da, tokian tokiko proposamenik egokienak landuz.

B) Herri edota auzogune bakoitzeko espazio egokiak identifikatu eta zerrendatuko dira (natur guneak, espazio irekiak, osasun irizpideak betetzen dituztenak). Herri bakoitzeko eragileak ere identifikatuko dira, herriaren eskaintza zein herriak izan ditzaken baliabide fisiko zein sozialak identifikatuz:

ERAGILEAK	BALIABIDE SOZIALAK	BALIABIDE FISIKOAK (ESPAZIOAK)
-Aisialdi taldeak	-Osasungintzako aditu eta zentruak	-Udal baliabideak
-Familia taldeak	-Hezitzaileak (profesional eta bolondresak)	-Eskolak
-Zaintza sareak	-Familiak	-Kiroldegiak
-Kultur elkarteak		-Parkeak
-Kirol elkarteak		-Naturguneak (zelaiak, mendiak, ...)
...		-Hondartzak
		-Kaleak (kaleak ixteko aukera, bideak motordun ibilgailuei itxiz ...)

D) Tokian tokiko baliabideen eta beharren arabera eraturiko koordinazio taldearen esku egongo da ekintza eskaintza nolakoa izango den pentsatzea, segurtasun neurriak betez eta haur eta nerabeen eskubideak erdigunean jarritz.

UDALDIRAKO EKINTZA ESKAINTZA

Aurrez aipatu bezala, badakigu 2020ko uda ez dela aurrez amestu genuen modukoa izango. Egoera honen aurrean eragile anitzetatik zein iturri ezberdinetatik jasotako proposamenen zerrenda bat eratu nahi izan dugu, bakoitzaren beharren arabera moldagarriak zein uztargarriak izan daitezkeenak.

Ratioen eta haur eta nerabeen bizilekuaren arabera taldek osatzea da gure gomendioa, auzoz auzoko haur, nerabe eta hezitzailez osatutako talde finko txikiak eratuz.

A) Gertutasunaren arabera taldeak osatu eta egunez egun espazio/ekintza ezberdinetan kokatzea.

Proposamen hau talde txikiak eta gertutasunaren arabera osatzean oinarritzen da. Herrian zehar identifikaturiko guneak zehaztuko dira, gune bakoitzean ekintza ezberdin bat edota egunez eguneko ekintza berdina planteatuz. Haur eta nerabeak egunero talde finko beretan egongo lirateke baina egunez egun espazioa aldatuz (errotazioa edota txokokako dinamikak jarraituz).

B) Gertutasunaren arabera taldeak osatu eta espazio konkretu batean kokatu, ekintzak bertan egin.

Aukera hau ere finkoa izango den talde txikietan oinarritzen da, baina kasu honetan, aurrera eramango diren ekintzak beti espazio berean egingo dira (ibaiaren alboan, zelaian, kantxan, ...). Kasu honetan, haur eta nerabeek espazio honen jabetza hartuko dute eta beraien beharretara egokitu, espazio eta herria berreskuratuz. Proposamen honekin herriko gune ezberdinak identifikatu beharko genituzke eta haur eta nerabe talde bakoitzari gune bat eman, bertan ekintza ezberdinak (programazioaren arabera) aurrera eramanez.

D) Herriko hezkuntza ez formal zein kirol/kultur eragileekin sarea osatu eta ekintza eskaintza antolatzea. Baita familia zein norbanakoekin ere.

Ekintza eskaintza honek komunitatean dauden eskaintzak zerrendatu eta egunez egun ekintza hauek herriko gune ezberdinetan aurrera eramatea du oinarri. Modu honetan, herriko eragile bakoitzak bere espazioa (izango balu) zein ekintza haur eta nerabeen esku jarriko luke, ekintza honen antolakuntzaren ardura izanik. Eskaintza honetarako ere, taldeak aurrez finkatu beharko lirateke, baita ekintza eta espazioak ere.

Kasu honetan, aurrez aipatutako bi aukerekin ere uztargarria litzateke.

E) Asteaz zehar kale ekintza eskaintza ezberdina egin, herriko aisialdi, kirol eta kultura elkarteekin harremanetan jarri, baita ipuin kontalariak, antzerkiak, ...

Kultur programazio gisa funtzionatzeko aukera proposatzen da, horretarako herriko kultur eragile eta sortzaileekin lanketa lehenetsiz, eta beharra balego kanpotik datozen kultur jarduerak landuz. Aukera honetan ere, taldeak edota ekintzetako parte hartzaileen zerrendak aurrez egin beharko lirateke.

F) Euria egiten duenerako ekintza eskaintza.

Ekintzak aurrera eramaterako orduan herrian dauden estalpeak identifikatzea oso garrantzitsutzat jotzen da, eskaintza egiterako orduan berau aurrez adostuz. Estalperik ezean, herriaren ardura estalpe hauek lortzea litzateke (karpak alokatuz edota inguruko herrietan eskatuz esaterako, edo herriko estalpedun espazioak modu seguruan nola erabili daitezkeen adostuz).

Hala ere, euriak berak eskaintzen dizkigun jolaserako aukerak ere aprobetxatzeko aukera izan dezakegu, naturan, herrian euripean ere esperimentatuz.

G) Antolatutako ekintza hauetaz gain, haurrei eta nerabeei familian eta kalean egin ahal izango dituzten baliabideen eskaintza egiteko aukera egon daiteke. Hau da, “udalekuan” kaleko ekintzak eta mugimendukoak egitea lehenetsiz, mugitzea, natura, arnastea, ... eta honekin lotuz, etxean zein kalean autonomoki egin dezaketen erronka bat proposatzea, marrazkia, mozerroa, frogak, ...

ELKAR ZAINTEKO NEURRIAK

Segurtasun neurriez hitz egiteak elkar zaintza neurriez hitz egitera garamatza, nola bermatu haur eta nerabeen babes emozionala? Nola bermatu hezitzaileek lasai lan egitea?

Guretzako, lantzen hari diren protokoloen garrantziaz gain, kontuan izan beharreko elkar zaintzarako hainbat neurri ere badaude:

1- KOMUNITATEA: Irizpide orokorgisa herriko espazioetan haur eta nerabeek lehenetsuna izateko beharra azpimarratzen dugu. Herria (ekintzetarako zehazturiko espazioek) haur eta nerabeentzako espazio bilakatu behar da, lehenetsuna izan behar dute momentu hauetan edota ekintzak aurrera eramaten diren espazioetan. Honetarako herritarrek, komunitatearekin lanketa egitea ezinbestekoa da, beldurrean oinarrituriko mezuak mezu positibo bilakatuz eta batez ere, herritarrak informatuz.

2- FAMILIAK: Familia-hezitzaile-herritarren arteko koordinazioa ezinbestekoa izango da, finkatuko diren segurtasun protokolo eta neurriak aurrera eramaterako orduan zein hezitzaileekiko konfiantzan oinarrituak. Familiekin aurrez lanketa egiten hasteko beharra egongo da, beldurretik elkar zaintzara pasatuz eta ardurak kolektibizatuz.

3- ZAINKETA EMOZIONALA: Segurtasun neurriez hitz egitean segurtasun emozionalaz ere hitz egin behar dela uste dugu. Haur eta nerabeak, itxialdi honetan kaltetuenak izan diren kolektiboen artean daude. Itxialdi honek euren garapen emozionalean ere eragina izan du, eta momentu honetan, kalera irtetzea zein lagunekin elkartzea modu ezberdinetan bizi duten haur eta nerabeak daude. Sortzen diren ekintza eta harremanetan, emozio ezberdinak lantzeko irtenbideak eskaintzea garrantzitsua izango da, honetarako ere elkar zaintza neurriak landuz.

4- ANIZTASUN FUNTZIONALA: Aniztasun funtzionala duten haur eta nerabeen kasuan, hauei begirako neurri zehatzak hartzeko beharra egonez gero, aurrez erabaki beharko dira ekintzen zein espazioen moldaerak. Baita hartzen diren babes neurrien nolakotasuna ere, guztiontzako ekintza eta espazio inklusiboak sortzea lehenetsiz.

5- EGOERA ZAURGARRIENEAN DAUDEN FAMILIAK: Haur eta nerabe guztiek izan behar dute udaldiaz gozatzeko aukera. Hala ere, aipamen berezia egin nahiko genieke hilabete hauetan egoera zaurgarrienean egon diren familia, haur eta nerabeei. Komunitatearen zein herriko eragile eta zerbitzuen ardura izango da familia/haur/nerabe hauek identifikatu eta udako eskaintza euren eskura jartzekoa.

6- HEZITZAILEEN BABES NEURRIAK: Hezitzaileontzako ere babes neurriak lantzeko beharra ikusten dugu, hezitzaileonganako konfiantza eta zaintzan oinarrituak, haur eta nerabeekin lasai egoteko aukera bermatzeko.

INFORMAZIO ITURRIAK

Tokian tokiko eskaintza osatzeko eskuragarri dauden baliabideak:

Mascarillas y test en los nuevos campamentos de verano / El Pais

<https://elpais.com/sociedad/2020-05-12/mascarillas-y-test-en-los-nuevos-campamentos-de-verano.html>

Grupos de 10 niños, con monitores y circuitos diferenciados, así serán los campamentos de verano en Cataluña / El Independiente

<https://www.elindependiente.com/politica/2020/05/11/grupos-de-10-ninos-con-monitores-y-circuitos-diferenciados-asi-seran-los-campamentos-de-verano-en-cataluna/>

PROTOCOLOS Y MEDIDAS HIGIÉNICO SANITARIAS PARA EL DESARROLLO DE CAMPAMENTOS DE VERANO 2020 / Colectivo nacional de Campamentos de Verano

<https://colectivocampamentosdeverano.com/wp-content/uploads/2020/05/PROTOCOLO-GENERAL-HIGIENICO-SANITARIO.pdf>

Recomendaciones y propuestas Covid19 e Infancia y Adolescencia – Navarra / Laboratorio de innovación socioeducativa de Asociación Navarra Nuevo Futuro

<http://laboeduca.org/recomendaciones-y-propuestas-covid19-e-infancia-y-adolescencia-navarra/>

“RECOMENDACIONES y PROPUESTAS para GESTIONAR y ACOMPAÑAR las FASES de TRANSICIÓN a la NUEVA NORMALIDAD de la INFANCIA y ADOLESCENCIA en la CRISIS del COVID.19 en NAVARRA” testutik

<http://laboeduca.org/wp-content/uploads/2020/04/Propuestas-y-recomendaciones-transicion-covid-Navarra-abril-2020.pdf>

Informe del Injuve para campamentos de verano 2020 / Campamentos.info

<https://www.campamentos.info/Noticias/informe-del-injuve-para-campamentos-de-verano-2020>

UME ETA NERABEENTZAT AISIALDI HEZITZAILEKO JARDUERAK DITUEN 2020 UDA IZATEAREN ALDE

<http://astialdisarea.eus>